BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

5149

AGINDUA, 2013ko uztailaren 3koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, «Fundación Renovatio» fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

«Fundación Renovatio» fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da. Hona hemen

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2013ko ekainaren 13an, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Erregistro Orokorrean sartu zen, telematikoki, 2013ko maiatzaren 26an Euskal Herriko Notarioen Elkargoko Martín Gabarain Astorqui notarioak egiletsitako eskritura publikoa (374 protokolo-zenbakia). Eskritura horretan honako eskaera jasotzen zen: Asociación de Usuarios Terapéuticos y Lúdicos de Cannabis de Euskadi Greenfarm eta Asociación Ganjazz Art Club elkarteek sortutako «Fundación Renovatio» fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskriba zedila.

Fundazioaren helburuak zilegiak eta interes orokorrekoak zirela egiaztatzeko bilera egin ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren Aholku Batzordeak Fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman zuen.

Bigarrena.– «Fundación Renovatio» fundazioaren helburua Estatutuetako (titulu publikoan jasotakoetako) 3. artikuluan ezarritakoa da, eta honako hau da:

Euskal gizartearen barruan, kanabisa darabilten kolektiboen zein pertsona fisikoen interesak bultzatu, sendotu eta babestea.

Helburu hori betetzeko, Fundazioak jarduera zehatzak burutuko ditu; hauek dira

– Kanabisa kontsumitzeari lotutako arriskuak arintzeko prebentzio-heziketaren arloko jarduerak.

– Osasun publikoari eta arlo soziologikoari eta juridikoari lotutako ikerketa- eta azterketa-jarduerak.

– Kanabisa erabiltzen duten pertsonen elkarteei eta kanabisaren elkarte sozialei lotutako zerbitzu eta produktuen kalitatea egiaztatzeko sistema lortzera bideratutako jarduerak.

– Erakunde publikoek eta izaera pribatukoek gauzatzen dituzten ikerketa zientifikoak sustatu era bultzatzea, batez ere kanabis landareari eta horren printzipio aktiboei dagokienez.

– Ekitaldiak, topaketak, batzarrak eta hitzaldiak antolatzea, baldin eta euskal gizartean kanabisaren erabilera normalizatzeko politikak eztabaidatzeko badira.

Hirugarrena.– Fundazioaren egoitza, Fundazioaren Estatutuetako 5. artikuluan jartzen denez, hau da: Zubi Berri bidea 31. zk., P B: Donostiako 3.

Laugarrena.– Hasierako diru-zuzkidura hirurogeita hamabi mila (72.000) eurokoa da. Diru-kopuru horretako hogeita hamar mila eta ehun (30.100) euro jarri dituzte hasieran erakunde eratzaileek, bakoitzak hamabost mila eta berrogeita hamar (15.050) euro. Fundazioaren gainontzeko ondare-zuzkidura, hau da, berrogeita bat mila eta bederatziehun (41.900) euroko geroago ipini dute erakunde eratzaileek, eskritura hau eman zenetik harako bost urteko epean.

Kopuru hori ordaindu dela –agiri bidez– jasota geratu da erregistro-inskripzioko espedientean, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuak 37.1.c) artikuluan.

Bosgarrena.– Patronatuari dagokio Fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, Fundazioaren estatutuetako 9. eta 12. artikuluetan ezartzen den moduan.

Seigarrena.– Estatutuetako 10. eta 11. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, fundazioa eratzeko eskrituran ezarritakoaren arabera, Patronatuko kideak, hasieran, honako hauek izango dira:

	Patronatukidea	Ordezkaria	Kargua	Iraupena
Patronatukide sortzailea	Asociación de usuarios terapeúticos y lúdicos de cannabis de Euskadi. Greenfarm	José Martín Urriola Alberdi jauna	Lehendakaria	
Patronatukide sortzailea	Asociacion Ganjazz Art Club	Joseba Martínez Sampedro jauna	Bokala	
Izendapen askeko patronatukidea	Aitor Brion Barneto jauna		Idazkaria	27-05-2017
Izendapen askeko patronatukidea	Iker del Val Valverde jauna		Bokala	27-05-2017
Izendapen askeko patronatukidea	Anuska Goenaga Basurto andrea		Bokala	27-05-2017

Guztiek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritako moduetariko bat erabiliz.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio fundazioaren estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuan; eta Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzekoan.

Bigarrena.– Hartarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espedientea. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datuak eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa. Aplikatzekoak diren legeetan eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat etorrita eratu da fundazioa.

Ikusirik aipatutako arauak eta, oro har, kasu honetan aplikatu beharreko gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea, egun honetan eta F-355 erregistro-zenbakiarekin, Donostiako «Fundación Renovatio» delakoaren

eraketa, eta bai Patronatuaren hasierako osaera ere (patronatu horren kideak seigarren aurrekarian agertzen dira); betiere, 2013ko maiatzaren 27an, Donostiako Martín Gabarain Astorqui notarioaren aurrean egiletsitako eskritura publikoan (protokolo-zenbakia: 374) zehaztapenekin bat etorriaz.

Bigarrena.– Fundazio hori, dituen helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 4. sekzioan sailkatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 3a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.